

Zintzoaren kutxa

Pradere'tar Blas apaiza da
idaztitxo (liburutxo) onen
egillea = = = = =



SAN SEBASTIÁN
EDITORIAL Y PRENSA, S. A.

1921

ATV

30636

n- 68330

F- 72259

Am

30636





Zintzoaren kutxa

¿Quæ in juventute tua non congregasti, quomodo in senectute tua invenies? (Eccli. XXV, 5.)

¿Zure zartzaroan nola arkituko dituzu, zure gaztetasunean bildu etzenituban gauzak?

Itzaurrea

Bide okerretik dabiltzanak, bide zuzenean ipintzea, on da. Orisen da orain nik egin bear dedan lana. Asko dirade diruba nai luketenak, zartzaroan badaere, zerbait patxaran bizitzeko. Orretarako artzen dituzten bideak ordea, egokiyak ez dirade, utseginda dabiltz. Beragatikan noakiye ni, bide eroso eta zuzenak erakustera.

Oker bideak

I.º

Zozketan (loterian) jokutzen dute askok, zoriyak (suerteak) lagundu, eta gabetik goizera aberastutzen ote diran. Osoro zalla da ordea era orretara aberastutzea, milletatik batek bakarrik ere, nai lukean zoriya izaten ez dubalako; eta diruba aurreratatu bearrean lur-jotzen dutelako askok. ¿Zenbatek zartzaro ona izan zezaketen, zozketan alperrik emandako dirubak kutxa batean gorde izan bazituzten!

II.º

Amerik'etara dijoaz beste asko eta asko, edota beste toki urrutietara, diruba an botaka dagoalakoan, lurretik jaso besterik ez dutela. Eta ikusten dutenean galanki lanegin bear dala toki ayetan, eta alaere aberasten ez diradela, osoro zintzoak ez badira ez beintzat, damutan daude ara joana, atzera pozik biyurtuko lirakenean. ¡Zenbatek diyoten, an bezela lanegin ezkeroz, emen ere bizi litekeala bat!

III.º

Besteak berriz ez dakizkiten lanetan sartzen dirade; berai ez dagozkiyoten eginkizun, artu-eman eta salerostetan ekiten diyote; lagunkide maltzur eta gaiztoakin alkartzen dute; euneo zortzi, amar edo geyago agintzen dutenai diruba ematen diyozate; eta bat-batetan ondatzen dirade, gabetik goizera arditik bage eta zorretan arkitzen diradela. Orrelakoai gertatu oi zayote esaera zar batek diyona: *ille eske joanik, etorri muskil-durik.*

IV.º

Jokuban eta leyetan (apostubetan) aberastu nai lukete beste askok. Inor gutxi ikusten da ordea aberastutzen era orretara, bat-bakarik ez, obeto esateko. Gertatzen dana da, azkenerako, zedukaten guziya galtzea, beren sendiyak (pamilyiak) osoro ondatubaz eta beren burubak, bein bañon geyagotan, urkatu edo iltzen dituztela. ¿Eta zeñek ez dakizki joku eta leyetan izaten diraden aserre, erretxinkeri, birau eta buruauste izugarriyak? Onenera jotaere, joku eta leyetako irabaziya, besteri kendu eta negar-malkoak atera dizkiyona baita. ¿Eta orrelako irazabiya nai degu? ¡Zer biyotz gogorra orduban gurea!

Zuzen bideak

I.º

Bide onetik diruba egin nai dubanak, aurren-aurrena galgiroak (biziyoak) utzi bear ditu. Arrokeri, loikeri, salukeri eta

beste galgiroak diru asko eramaten dute alabaña. Galgiroak utziyarekin beraz, gerontzako diru asko geratzen baizaigu.

Ez bada buru-bat egiñ, guk bañon geyago dezaketenakin, jan-edan, apañdura, etxe-bizitza eta joan-etorriyetan. Eztaere egon, sarritan ez beintzat, edota luzaro, aketa (kafe), ardo, sagardo eta bestelako edaritegiyetan. Gutxiyago berriz edari ugorkidunak (biziyak) irintsi, eta ke-belarra (tabakoa) ez aon erre. Eta are gutxigo lizunetxe eta beste toki galgarriyetara joan.

Aitatu ditudan gauz oyeak ¿diru asko kentzen baidute? ¿eta osasunaren kaltean ere baidirade batzubek? Utzi beraz guziyak, osasuna eta diru-mordoska izan nai baditugu.

II.º

Langille izatea da, urrena egin bear dubana, zartzarorako diruba osatu nai lukeanak. Egatzeko jayoa dan bezela egaztiya, lanerako jayoak gerade luditar (mundutar) guziyok. Eskuz eta oñez batzubek eta buruz besteak nekatu bearra dadukagu ludi onetan. Jakintsu aundi batek egoki diyo txingurriya'gandik lanean ikasi bear degula. Aberetxo hori langille aundiya izatez bat, geratzen ez dana bearrerako garayan, osoro ere da begiratuba. Aurretik bearregiten du eziñgo dubanerako, neguban jan bear dubana udaran biltzen dubala, Lanegin dezagun daba galanki gauza graden artean; eta diruba aurreratu, bearko degunerako. Lanegiteak, edozeñek dakiyanez, gauza eta zoriona dakaizki; alperkeriyak ordea eztasun eta zoritxarra besterikan ez, naiz Amerika'n egon.

III.º

Diru-zaparrada bat nai dubanak, zerbait lasatasunez ge-roenean bizitzeko, beste alderdi bat bear du oraindikan ere, eta da *zintzoa* izatea. ¿Zertako litzake gogotik lanegitea, irabaziyai ez begiratzekotan, edota lantsaria bañon geyago ondatzekotan? Premiyak estalita gero geratzen zaizkan irabaziyak, gorde bear ditu langilleak bere etorkizunetarako.

Orrek ez du esan nai arditik beñere eman bear ez dubala, zikoitz edo txurra izan bear dubala, ez. Bear danetan bear

dan adiña gauz edo diru opa bear zayezte artzeko dutenai, premiyan daudenai ere bai.

Zintzo izatea da irabazi baño diru geyago ez zabaltzea, txorakeriyetan irabaziyak ez ematea, alperrikako ondaketak (gastubak) ez egitea. Zezenketak (korridak), antzerketak (teatroak), irudibillak (zinematografoak), eta bestelako ikusgarriyak, alperrikakoak guziyak. ¿zenbat diru ez daramate urtearen buruban? Eta bultziyetan (trenetan), tximisgurdiyetan (tranbietan) eta erbestetan ¿zertako ainbeste ibilli sakelaren kaltean? Añazetara (peritara) eta zeyetara (azoketara) ¿zertara joan ain maiz?

Zintzo izatea da, gañera, bildu diraden irabaziyak kutxa eskierretan (segurubetan) gordetzea, norberaren eta sendiyaren premi guziyetarako, janedan, jantzi, etxe-bizitza, seme-alaben ezkontsari (dote) eta gaitzetarako batezere.

IV.º

Diru-pilla errazago osatu nai lukeanak, egin dezakeana da, azkenik, euneko onenbesteko bat geyago eman nai diyonari, irabaziyak utzi, aurreratu-ala. Diruba etxean gordeta idukitzeak, alderdi bi ditu txarrak. Bata da, diruba alperrik edo onura (protxu) gabe egotea; eta bestea da, norbaitek ostu, eramán edo itz eder ta leunakin kentzeko-galtzoriya (arriskuba).

Edozeñi ordea iduki-erazo bear etzayo diru edo gauza; erantzuteko naikea ez dubanari ez beintzat, eman bear etzayo; eta erantzuteko dubanari ere, beñere ez eman, artu dubalaren aitormen gabe, agiri benaren (formalaren) bidez. Euneko zortzi, amar edo geyago eskeintzen dutenakin beldur izan. Baitaere diruba berealañen biyurtuko dutela diyotenakin, eta are geyago artzen dutelaren agiri bena eman nai ez balukete. Begira beraz ongi gauz edo diruba nori, nolatan eta noiz arte ematen zayon.

Onena da, bearrak betetakoan geratzen zaizkigun irabaziyak diruetxeetara (bankubetara) eramatea, ondoen an daudelako. Ez ordea euneko geyena agintzen duten tokiyetan ez ipiñi diruba, baizikan adituben iritziyan benenak diraden diruetxeetan, euneko sari gutxiyago emango badute ere.

Guziyetan onen-onena da beraz, premiyak estalita gero daduzkagun ziz. edo txanponak, Diputaziyo eta Ayuntamentu'ben *diru-kutxetan* gordetzea. Osoro dirade eskier (seguru) eta benak (formalak) diru-kutx oyek; euneko iru, iru-terdi edo lau ematen dute irabazitzat; eta era berean Diputaziyo eta Ayuntamentu jaunai laguntzen zayote beren eginkizunetarako, euskaldun onai dagokiyen bezela.

Bukaera

Goyan, eta aurren-aurrena, Espiritu Santuba'ren itz oyek jarri ditut: *«Zure xartxaroan nala arkituko dituzu, zure gaztetasunean bildu etxenituban gauzak»* (Eccli. XXV.)— Esan nai dute, gaztetan, garaiz edo sasoi onean diru eta bestelako gauzak osatu dear ditugula, geroenean edota zartutakoan obeto izan nai badegu, patxarago bizitzen geradela.

Orisen ber-bera erakutsi det nik arestiyen, azaldubaz era berean, artarako utzi bear diraden bide okerrak eta jarraitu bear diraden zuzenak.

Nere irakurle maiteai dagokiye orain nere esanetan zintzo ibiltzea, beren eta sendiyen zorionerako, Alasen gerta dedilla eskatzen diyot goiko Jaunari.

PRADERE'TAR BLAS, APAIZA.

NIHIL OBSTAT

ALEXANDER ECHEVARRIA, Censor.

Victoriae die 11.^a septembris 1918.

IMPRIMATUR,

Dr. JOSEPH LEONTIUS O. DE ZARATE.

DE MANDATO PERILL GUBERNAT. ECCI. (S. P

Dr. JUSTUS DE ECHEGUREN.

(Locus sigilli)

Faint, illegible text at the top of the page, possibly bleed-through from the reverse side.

Second block of faint, illegible text in the upper middle section.

Third block of faint, illegible text in the middle section.

Fourth block of faint, illegible text in the lower middle section.

Fifth block of faint, illegible text at the bottom of the page.

